



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

2022/2023 ikasturtean seme-alaben hezkuntzako gastu orokorretarako Getxoko familiei eskainiko zaizkien diru-laguntzak emateko deialdiko oinarri arautzaileak.

2022ko irailaren 13ko Toki Gobernu Batzarraren akordio bitartez, 2022/2023 ikasturtean seme-alaben hezkuntzako gastu orokorretarako Getxoko familiei eskainiko zaizkien diru-laguntzak emateko deialdia eta bere oinarri arautzaileak onartu dira.

Getxon, 2022ko irailaren 14an.—Hezkuntza Zerbitzuko Zinegotzi Delegatua, Asunción Olaeta Pérez de Mendiola

**2022/2023 IKASTURTEAN SEME-ALABEN HEZKUNTZAKO GASTU OROKORRETARAKO
GETXOKO FAMILIEI ESKAINIKO ZAIZKIEN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK****1. artikulua. — Helburua**

Oinarrien helburua laguntza ekonomikoak arautzea da, familia getxotarrei seme-alaben hezkuntzagaratik gastu orokorrak zati batean ordaintzeko 2022-2023 ikasturtean, haur hezkuntzako bigarren ziklotik (hiru urte) DBH mailara arte barne.

2. artikulua. — Finantzazioa

Honako deialdia bete dadin, finantzazioaren gehieneko aurrekontua 150.000 euro (ehun eta berrogeita hamar mila euro) izango da, eta aurrekontu-partida honen kontura egingo da: 020.00/3200/ 480.00.00.

3. artikulua. — Onuradunak

Hezkuntzako gastu orokorretarako den honako diru-laguntza eskuratu ahal izango dute honako betekizunak betetzen dituzten herritarrak:

1. Familia-unitateko kide guztiak Getxon erroldatuta egotea 2022ko urtarrilaren 1etik.
2. Familia-unitateko kide guztiak helbide berean erroldatuta egon beharko dute.
3. Haur hezkuntzako bigarren ziklotik (hiru urte) DBH mailara arte, hau barne, eskolatuta.
4. Euren seme-alaben eskolatzeko egokia bermatzeko, eta era berean irakasleek, ikastetxeetako organoek eta hezkuntza administrazioek egingo dizkieten eskakizunak beteko ditudalako konpromisoa adieraztea.
5. Getxoko Udalekin eta Ogasunarekin dauden zerga betebeharrak Familia-unitateko kide guztiak egunean izatea, eta baita Gizarte Segurantzarekin daudenak ere.
6. Behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea. Familia unitatearen urteko diru sarrera guztiak, 2021ean, ez dira 53.500 euro baino gehiago izango (950 euro, 2021eko lanbidearteko gutxieneko soldataren hileko zenbatekoa (irailera arte, bider 4 eta 14 hileko soldata) eta 965 euro bost hileko soldatagaratik. Gehieneko muga hori elkarbizitza unitateko kide kopuruaren arabera haztatuko da:

Persona kopurua N.º de miembros	Gehieneko diru sarrerak Límite máximo de ingresos
1	53.500
2	56.316
3	59.444
4	62.941
5	66.875
≥ 6	71.333

4. artikulua. — Eskabideak aurkeztea

Eskaera bakarra izapidetu ahal izango da elkarbizitza unitate bakoitzeko.

Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:

- a) Eskatzailea.
- b) Eskatzailearen ezkontidea —non eta ezkontza-deuseztasun, banantze edo dibortziorik izan ez den— edo harekin izatezko bikote legez bizi dena.
- c) Seme-alabak, etxebizitza berean bizi badira.



Eskabidea behar bezala beteta (I. Eranskina) eta eskatutako dokumentazioa, ahal dela, Administrazio Elektronikoa Bulegoaren bidez aurkeztu beharko dira, helbide honetan: www.getxo.eus.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako tokiren batean ere aurkez daitezke eskaerak.

Informazioa eta eskaera-eredua Herritarren Arretarako Bulegoetan, zein udalaren web-orrian eskura daitezke (www.getxo.eus).

Eskabideak aurkezteko epea hilabete bat izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, diru laguntzen datu base nazionalaren bidez, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Eskaera epez kanpo aurkezten bada ez da onartuko.

5. artikulua. — *Ekarri beharreko dokumentazio orokorra*

Eskaerarekin batera (I. Eranskina) honakoa aurkeztuko da:

1. Eskaera behar den moduan Beteta. Eskarean barnean, Herri Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak familia-unitateko kide guztiak egunean dituela jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena eta Elkarbizitzako unitateko kide guztien datu pertsonalak lagatzeko baimena daude. Adingabeen kasuan, baimena legezko ordezkariak sinatu beharko du.
2. Eskatzailearen NANaren fotokopia
3. Familia-liburuaren fotokopia. Eduki ezean, eskatzaileak adingabekoarekin duen ahaidetasun-lotura egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ahal izango du, diru-laguntza zein seme-alabaren inguruan eskatzen diren datuak .
4. Ikasten ari den zentroaren ziurtagiria, seme-alabaren izena eta matrikulatuta dagoen ikasturtea eta hizkuntz modeloa adieraziz.

6. artikulua. — *Eskaera osatu gabea edo akastuna*

Aurkeztutako eskaera edo atxikitako dokumentazioa osatugabeak izanez gero edo akats konpongarririk edukiz gero, eskatzaileari arazoa 10 egun balioduneko epe barruan konpontzeko eskatuko zaio, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, adieraziko zaio eskatutakoa betetzen ez badu, eskaera bertan behera utziko dela, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da.

7. artikulua. — *Izapidetzea eta ebazpena*

Oinarri zehatz hauetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxoko Udaleko Gizarte Kohesiorako arloa izango da.

Ebazpena emango duen organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, hiru hilabeteko epe barruan, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuta, kide anitzeko organoak proposamena egin ondoren.

Ebazteko epea igarota, diru-laguntzaren eskaera ezetsiko da berariazko ebazpenik izan ez bada, hala aurreikusten baitu 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 25.1. artikuluan.

Ebazpenak jasoko ditu, gutxienez, pertsona onuradunen harremana, zenbatekoak eta, egonez gero, ukapenen motibazio egoki eta nahikoa. Ebazpen guztiak web orrian, www.getxo.eus publikatu dira.

Diru-laguntzen 38/2003 Legeak ezarritakoaren arabera, instrukzio organoaren eta Alkatetzaren uztailaren 2ko 3235/2019 Dekretuaren bitartez sortutako kide anitzeko organoak diru-laguntza emateko proposamena formulatuko diru-laguntzak ematea dagoen organoari.

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradunei laguntza eman eta ordaindu aurretik (hala erabaki bada), Getxoko Udalak emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen eremuan hasi den edozein zehapen edo itzulketa prozedura bukatu beharko da, oraindik izapidetze fasean baldin badago.

Eskaeren ebazpenen ondoren, urte bateko epearen barruan, suntsitu egingo dira.

**8. artikulua. — Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua**

Diru-laguntza eskaera bakoitzeko banaka ezarriko den diru-zenbatekoan datza. Zenbatekoa zein den finkatzeko, semealaben eskolako maila izango da kontuan, ondoko taulan adierazten den bezala:

	Lehen eta Haur Hezkuntza Infantil y Primaria (€)	Bigarren Hezkuntza Secundaria (€)
Kopurua seme alaba bakoitzeko Importe por hijo/a	75	125

Elkarbitza unitateak jaso dezakeen gehiengo kopurua 350 euroko da.

Egindako eskaeren ondorioz oinarri hauen bigarren puntuan jasotako gehieneko aukerak kreditua baino zenbateko handiagoa ateratzen bada, diru-laguntza guztiak proportzioz murriztuko dira.

Honako oinarrietan ezarritakoaren arabera emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publikoek eman ditzaketen diru-laguntzekin, derrigorrezko eskolatzeko eragindako gastuak ordaintzekoak. Gastu horiek irakaskuntzaren edo material didaktikoa erostearen ondoriozkoak izan daitezke, edota eskolaz kanpoko ekin-tzakoak.

9. artikulua. — Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzaren jasotzaileek honako deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita emandako diru-laguntza onartu ere. Zazpi eguneko epe barruan, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena egin den egunetik zenbatzen hasita, onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten, onartutzat joko da.

10. artikulua. — Diru-laguntzen justifikazioa

Ez da beharrezkoa izango agiri zehatzekin egiaztatzea laguntza honen bidez finantzatu diren gastuak. Izan ere, laguntzaren bitartez gehienez emango den dirua, 125 euro seme-alaba bakoitzeko, gutxieneko zenbateko estandartzat jo da edozein hezkuntzako orokorretarako gastuetarako.

11. artikulua. — Diru-laguntzen itzulketa

Laguntza lortu denean hura lortzeko beharrezko baldintzak bete gabe, oker jasotako zenbatekoak itzuliko dira itzultzeko dagokion prozeduraren bitartez.

Diru-laguntzak emandako organo berberak emango du itzulketa aginduko duen ebazpena.

Itzultzeko espedientea Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen IV. tituluaren ezarritako prozedura-arauen arabera izango da. Horretan, interesdunari entzunaldia emango zaio 15 egun balioduneko epe barruan.

12. artikulua. — Publizitatea

Oinarri arautzaileak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta deialdia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean jasoko da. Organismo honek deialdiaren laburpenaren berri emango dio Bizkaiko Aldizkari Ofizialari, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17., 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Era berean bai oinarri arautzaileak eta bai deialdia udal webgunean ere argitaratuko dira.

13. artikulua. — Araudi esparrua

Honako oinarri hauek lotzen zaizkio Getxoko udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-laguntzen Ordenantza orokorra 2022ko martxoaren 16ko BAOan argitaratutakoa, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudiak eta aipatutako legearen araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritako araudi esparruari, premisa gisa hartuta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006



Lege Organikoak eta Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoa eta 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.

14. artikulua.—Elkarregingarritasuna

Getxoko Udalak, elkarregingarritasunaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta deialdi honetarako administrazio-izapiderako beharrezkoa den beste edozeini buruz ere. Horregatik, elkarregingarritasunaren xede izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da: artikulua horretan aitortzen da herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek lagundu egin behar dute datu-trukean, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.